



IKASTETXEAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA BILBOKO HEO

(aprobado en el OMR del 22/05/2015)

1. BILBOKO HEOren EZAUGARRIAK

- Helduentzako –gehienak 24 eta 45 urte artekoak– hizkuntzen irakaskuntza eta ziurtapenerako ikastegia.
- 8 hizkuntza eta 6 maila ematen dira (Errusierako B2 eta C1 izan ezik).
- Ia 7.000 ikasle ofizial eta beste 3.800 ikasle libre.
- Maila ertaineko hiri-eremua, ondo komunikatua, unibertsitate-ingurua.
- Ikasleak Autonomia Erkidegokoak eta mugakide diren erkidegoetakoak dira, baina bereziki Bilbokoak.

Indarguneak	Ahulguneak
<ul style="list-style-type: none">- Matrikulazio-eskaera handia.- Ikastegiaren balorazio orokor ona, bereziki eskolei (2,59/3) eta irakasleengandiko arretari (2,73/3) dagokienez, 2013ko galdetegiaren arabera.- Irakasle-talde egonkorra eta esperientziaduna.- Elkarrizketa-laguntzaileak eskaera handieneko hizkuntzetan.- Jarduera osagarriak.- Multimedia eta liburuen eta filmen mailegua.- Materialen ekipamendu ona.	<ul style="list-style-type: none">- Ikasleen aldetik asti gutxiegi: maizko ausentziak eta dedikazio mugatua.- Uzte-tasa handia: ikasle ofizialen % 30 eta ikasle libreen % 20.- Ikasketa-emaitza hobegarriak: ikasle ofizialen % 50 gai dira, eta ikasle libreen % 30.

2. HELBURU OROKORRAK

- Kalitateko irakaskuntza, ikasleek ikasten ari diren hizkuntzan komunikatzea ahalbidetuko dien hizkuntzaren arrazoizko ezagupena lor dezaten.
- Ikasten ari diren hizkuntzari dagokion kulturaren ezagupena: jarduera osagarriak.
- Ikasteko autonomiaren sustapena: estrategiak, ohiturak, bitartekoak, tresnak...
- Herritar kulturadunak, beste kultura batzuetara irekiak, desberdinak direnekin begirunez jokatzeko dutenak, tolerantzak... sortzen laguntzea.
- Berdintasuna lortzen aurrerapausoak ematea.
- Hezkidetzaren sustatzea, izaera sexista duten material edo jarduerak desagerraraziz eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako irizpideak txertatuz.
- Beharrez bereziak dituzten pertsonen laguntzea, gizarteratzeko erraztasunak izan ditzaten.
- Kalitateko instalazioak eta ekipamendua izaten jarraitzea.
- Irakasleen formazio etengabe eta eguneratua.
- Ikastegiaren ebaluazio sistematikoan eta irakaskuntzako eta kudeaketako jardunean oinarrituriko hobekuntza.
- Guztiontzat asebetegarria den lan-giroa lortzea.
- Eskola-erkidego guztien artean euskararen erabilera bultzatzea.
- Hezkuntza-erkidegoko sektore guztien arteko komunikazioa eta lankidetzaren bermatzea.
- Eskolako bizimoduko alderdi guztietan kudeaketa demokratikoa sustatzea.
- Tolerantzia eta errespetuzko giroa sortzea hezkuntza-erkidegoko kide guztien artean; eta gatazkak elkarrizketaren eta parte-hartze arduratsuen bidez konpontzea.
- Talde-lana eta ideien kontrastea bultzatzea.
- Ikasleek besteak diren bezala entzun eta onar ditzaten lortzea, inola ere epaitu gabe, ez aurrez ez ondoren, euren jatorriagatik, generoagatik, iritziengatik...
- Irakasleen koordinazio eraginkorra lortzea, eskola-erlazioak hobetzea lehentasuna izango duena.
- Ikasle guztien ikasteko gogoia sustatzea eta gero eta modu autonomoagoan ikas dezaten gaitasunak eskuratzen laguntzea.
- Ikastegian dauden giza baliabide eta baliabide material guztiak modu egoki eta eraginkorrean kudeatzea.
- Gure ikastegiaren nahi dugun proiektu pozgarri, parte-hartzaile eta demokratiko honetan hezkuntza-erkidegoko kide guztiak txertatzea.

3. ILDO PEDAGOGIKOA

Ikastegi honetan 8 hizkuntza irakasten ditugu: ingelesa, euskara, frantsesa, alemana, italiera, gaztelania (atzerriko hizkuntza), portugesa eta errusiera.

Eta hizkuntza bakoitzean 6 maila ematen ditugu: Oinarrizko maila 1 (A1), Oinarrizko maila 2 (A2), Tarteko maila 1 (B1), Tarteko maila 2 (B2.1, B2.2) eta Maila aurreratua (C1).

Errusieraren kasuan B1 (tarteko maila) ere 2 ikasturtetan banatuko da: B1.1 eta B1.2. B1 mailako ziurtagiria B1.2 maila gaindituta lortuko da.

Gure ildo-pedagogikoa honako printzipio hauetan oinarritzen da:

- Metodologia komunikatiboa, 4 trebetasunen garapenean oinarritzen dena: ahozko eta idatzizko ulermena eta adierazpena.
- Etengabeko ebaluazioa (A1 eta B1.1), aurrerapeneko (maila guztietan) eta ziurtapeneko (A2, B1, B2 eta C1).
- Teknologia berrien erabilpena.
- Tutoretzak: aurrez-aurrekoak eta on-line.
- Ikasteko autonomiaren sustapena.

4. ANTOLAMENDU EREDUA

Gure ikastegiaren antolamendua honako printzipio hauetan oinarritzen da:

- Estamentu guztiek hartzen dute parte bere eskumenekoak diren gaiei buruzko erabakiak hartzen: irakasleek sailetan, koordinazio pedagogikorako batzordean, klaustroan eta OOGn; ikasleek eta irakaskuntzaz kanpoko langileek, OOGn.
- Hezkuntza-erkidegoko kide guztien arteko erabateko komunikazioa, bileren, mezu elektronikoen, elkarrizketen, eta abarren bidez.
- Informazioaren ahalik eta hedapen handiena, guztion eskura jarritz haien zereginei buruzko informazio eta dokumentuak, eta erabilgarri dauden euskarri guztiak erabiliz.
- Gardentasuna eta parte-hartzea kudeaketan eta baliabide ekonomikoen banaketan.
- Gatazken ebazpena.
- EAEko HEO guztiekiko koordinazioa.